

# BALIO PROPOSAMENA



Gaur egun, gazteak aisialdirako aukera gutxi ditugu, gehienok kalean elkartzen gara eta Gasteizen, gainera, klimatologia hotza dela eta, gehienetan tabernetan egotera behartuta gaude. Horregatik, gure ideia gure egunerokotasunean daukagun arazo hau konpontzeko grinarekin sortu da. Gure hirian lokal bat irekitzean datza, geroago gehiago irekitzeko asmoarekin, gazteak elkartze puntu gisa erabiltzeko, erosotasuna bermatzeko eta jarduera ezberdinak garatu ahal izateko. Horrela, jende berria ezagutzeko aukera ematen dugu.

Landu dugun bezala, enpresak balio kuantitatiboa (prezioa) eta kualitatiboa(diseinua) duten hainbat ezaugarri erabiltzen ditu; hala nola, berritasuna, prezioa, diseinua, marka...Ezaugarri hauen helburua eta baita gure enpresarena ere, balioa sortzea da; hau da, arrakasta izatea eta lehiakideengandik desberdintzea.

Balioa sortzeko prezio baxuak eskaintzeaz gain, ezberdintzen gaituen faktoreen artean gertutasuna, eskuragarritasuna, aukera eta jarduera ezberdinak, erabil erraztasuna...daude. Egia esan, badaude zerbitzu antzekoa ematen dituzten aukerak gure inguruan baina, desberdintzen gaituena jarduera desberdinak dira batez ere. Lokalen disenuari dagokionez, hiru gela aurkitu ditzazkegu, bakoitzak eskaintzen dituen hau da: karaokea, jarduera fisikoa egiteko klaseak, aisialdirako egongela. Aipatzekoa da ere, egunero klase kirol jarduera desberdinak daudela eta gainera, larunbatero karaokearen gelan festa berezia (mozorro festa...) berri bat egiten da.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, eksklusibitatearen truke ordaintzeko prest dauden bezeroentzat aukera ezinhobea iruditzen zaigu, 15-30 urte bitarteko pertsonentzat bideratuta baitago, prezio egoki baten truke.

